



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK

2011ko UZTAILA

**EUSKARA ETA
LITERATURA**

*PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD*

JULIO 2011

***LENGUA VASCA Y
LITERATURA***

Azterketa honek bi aukera ditu. Horietako bati erantzun behar diozu.

Ez ahaztu azterketako orrialde bakoitzean kodea jartzea.

- *Lehenbizi TESTU bat duzu.*
- *Testu bakar honen gainean eraikiak daude bi aukerak: A eta B. Bietako bat egin behar duzu.*
- *Aukera bakoitzak hiru atal ditu:*
 - *Irakurmena*
 - *Ulermenari buruzko galderak (2 puntu)*
 - *Gaia eta laburpena (2 puntu)*
 - *Hizkuntzaren/literaturaren inguruan (1 puntu)*
 - *Idazlana (5 puntu)*



Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK

2011ko UZTAILA

EUSKARA ETA
LITERATURA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD

JULIO 2011

LENGUA VASCA Y
LITERATURA

Mercedes Sosa gogoan

Mercedes Sosa, "La Negra", Hego Amerikako folkloreakin ezinbesteko erreferentzia, hil da, gibelego gaixotasunak jota, Buenos Aireseko ospitale batean. Argentinako folkloreaki zabalkundea eta berrikuntza eskaini zizkion abeslaria igandean zendu zen 74 urterekin. 40 diskoetik gorako uzta eman du Sosaren ibilbideak.

Ideologia aurrerakoiarekin konprometitu agertu da beti Mercedes Sosaren musika. Hala islatzen da 70eko hamarkadan kaleratu zituen "Traigo un pueblo en mi voz", "Hasta la victoria" eta "Cantata Sudamericana" lanetan. Militarrei ez zitzaieen oharkabeen pasa eta erregimenak iraun zuen artean debekatuak izan ziren "La Negra"-ren diskoak. "AAA" talde paramilitarrak heriotzarekin mehatxu egin zuen, errepresioa eguneroko kontua zen, desagertuak... Hala eta guztiz ere, Mercedes Sosa Argentinan geratu zen.

Harik eta 1979an La Plata hirian kontzertua ematen ari zela militarrek kantaria bera eta publiko guztia atxilotu zuten arte. Urte horretan erbestera joan zen. Parisen bizi izan zen lehenengo, Madrilen ondoren. Eta 1982an, militarren diktadura amaitu aurretik, Argentinara itzuli zen.

Diktadurak geroz eta zailtasun handiagoak zituen erregimenari eusteko, demokraziaren aldeko ahotsak geroz eta indar gehiago zuten kaleetan eta, musikari zegokionean, bultzada jaso zuten giza eskubideen alde eta sektore baztertuen alde agertu ziren musikariek. Ez da harritzekoa, beraz, Mercedes Sosak itzulera harrera beroa jaso izana. Berotasun horren adibide da "Mercedes Sosa en Argentina" zuzeneko diskoan grabatu zen kontzertuko giroa.

Hurrengo urteetan ibilaldiko emanaldirik garrantzitsuenak eskaini zituen Europan eta Hego Ameriketara batez ere.

Azken lanean, aurten kaleratu den "Cantora" diskoan Joan Manuel Serrat, Caetano Veloso, Charly García, Luis Alberto Spinetta, Fito Páez, Gustavo Cerati, Jorge Drexler, Shakira, Julieta Venegas eta Joaquín Sabinaekin batera egin du lan, besteak beste.

Kantaria ohore nazionalarekin omendu dute eta jendetza bildu da Argentinako Kongresuaren inguruetan azken agurra emateko.

(Argia, moldatua)



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK

2011ko UZTAILA

EUSKARA ETA
LITERATURA

A AUKERA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD

JULIO 2011

**LENGUA VASCA Y
LITERATURA**

A.1.- IRAKURMENA

ULERMENA (2 puntu)

(Aukeratu erantzun egokiena. Aski duzu zenbakia eta letra jartzea: 1.a; 2.d;...)

1.- Mercedes Sosaren musika...

- 1.a. azken aldian ideologia aurrerakoiarekin konprometitua agertu da.
- 1.b. Europan zehar folklorea ikertzen pasatutako 40 urteen fruitua da.
- 1.c. Argentinako diktadurari laguntzeko asmoz sortua da.
- 1.d. Ideologia aurrerakoiarekin konprometitua agertu da beti

2.- Mercedes Sosa...

- 2.a. Argentinako militarrek, 1979an, atxilotu egin zuten bere etxean.
- 2.b. Kontzertu bat ematen ari zela atxilotu zuten, entzuleekin batera.
- 2.c. Buenos Airesen kontzertu jendetsu bat ematen ari zela atxilotu zuten.
- 2.d. 1982an atxilotu zuten Parisen eta Madrilen emandako kontzertuengatik.

3.- Argentinako diktadurari

- 3.a. gero eta zailago zitzaion botereari eustea.
- 3.b. laguntzeko asmoz itzuli zen Mercedes Sosa.
- 3.c. musikariek laguntzen zioten.
- 3.d. kontzertua eskaini zioten musikariek.

4.- “Mercedes Sosa en Argentina” diskoa ...

- 4.a. Parisen grabatu zen Argentinako erbesteratuei laguntzeko.
- 4.b. zuzenean grabatu zen.
- 4.c. Erbestealdian idatzitako poemez osatua dago.
- 4.d. herriak ez zuen oso bero hartu.

5.- “Cantora” izeneko diskoa...

- 5.a. Shakirari eskainia da.
- 5.b. “Mercedes Sosa en Argentina” baino hunkigarriagoa izan zen.
- 5.c. izan zen Mercedes Sosaren azken lana.
- 5.d. Argentinako Kongresuak eskaini zion azken omenaladia da.



Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK

2011ko UZTAILA

**EUSKARA ETA
LITERATURA**

*PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD*

JULIO 2011

***LENGUA VASCA Y
LITERATURA***

GAIA ETA IDEIAK (2 puntu)

GAIA (Aukeratu egokiena)

- a) Hego Amerikako folkloreaken historia
- b) Mercedes Sosaren eragina Argentinako diktaduran.
- c) Mercedes Sosaren jarrera Argentinako diktaduraren aurrean.
- d) Mercedes Sosak nazioarteko kantariekin izandako harremana.

IDEIA NAGUSIAK

(Azaldu testuan agertzen diren ideia nagusiak eta bigarren mailakoak)

A.2.- HIZKUNTZA ETA LITERATURAREN INGURUAN (1 puntu)

AURKITU TESTUAN DEFINIZIO HAUEI DAGOZKIEN HITZAK

- a) Jende-kopuru handia.
- b) Gerra gizona.
- c) Musika emanaldia, batez ere talde batek egina.
- d) Diktadore batek agintzen duen gobernu era.

A.3.- IDAZLANA (gutxienez 200 hitz) (5 puntu)

GUTUNA

Eman dezagun musika jaialdi bat antolatu nahi duzula Gobernu Kanpoko Erakunde (ONG) bati laguntzeko. Horretarako, proiektu bat aurkeztu behar duzu udaletxean, azalduz nolako programa izango den, zer azpiegitura beharko duzuen, zer nolako emaitzak espero dituzuen eta abar. Eskareri gutun forma eman behar diozu.



Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK

2011ko UZTAILA

**EUSKARA ETA
LITERATURA**

B AUKERA

*PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD*

JULIO 2011

***LENGUA VASCA Y
LITERATURA***

B.1.- IRAKURMENA

ULERMENA (2 puntu)

(Erantzun galdera hauei)

1. Zein zen Mercedes Sosaren ideologia? Non ageri da hori?
2. Non atxilotu zuten Mercedes Sosa eta zergatik?
3. Diktadura amaitu arte egon al zen erbestean?
4. Nolakoa izan zen herriak eskainitako azken agurra?

GAIA ETA LABURPENA (2 puntu)

GAIA (Aukeratu egokiena)

- a) Hego Amerikako folkloreaken historia
- b) Mercedes Sosaren eragina Argentinako diktaduran.
- c) Mercedes Sosaren jarrera Argentinako diktaduraren aurrean.
- d) Mercedes Sosak nazioarteko kantariekin izandako harremana.

LABURTU TESTUA (gehienez, 5-7 lerro)

B.2.- HIZKUNTZA ETA LITERATURAREN INGURUAN (1 puntu)

(Azaldu ondoko esaldi hauen esanahia)

1. "40 diskotik gorako uzta" aipatzen da. Zergatik "uzta"?
2. "harrera beroa" esaten dugunean zer esan nahi du "bero" adjektiboak?
3. "Azken agurra" zeri esaten zaio?
4. "Mercedes Sosaren ibilaldia": zergatik "ibilaldia"?

B.3.- IDAZLANA (gutxienez 200 hitz) (5 puntu)

Gaia: Musika eta gizartea

Ondorengo gidoia garatuz **iritzi artikulua bat** prestatu behar duzu egunkari baterako:

- Musika gizartea aldarazteko tresna.
- Tresna desberdinak: literatura, musika, ...
- Literaturaren eta musikaren arteko harremanak.